

1.- AURKEZPENA

Villabonako Aizkardi Mendizale Elkartek, argazki eta mendizaletasuna bateratu nahian, mendiko ibilbide erraz batean zehar egingo den argazki rally-a antolatatu du 2023ko azaroaren 12rako. Partehartzaileek aurrez markatutako ibilbidea burutu beharko dute, zeinetan egun berean jakitera emango den, eta natura zein mendiarekin erlazioaturik egongo den gai zehatz bati buruz argazkiak atera beharko dituzten. Mendian buruturiko ekintza izaki, arropa zein oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da.

2.- EUSKARRI FOTOGRAFIKOAK

Onarturiko euskarri fotografikoak analogikoak, bai zuri-beltzean, bai koloretan, eta digitalak izango dira. Memoria txartel estandarrek erabiltzen ez dituzten kameradun partehartzaileek dagokien komunikazio-kablea ekarri beharko dute argazkiak deskargatu ahal izateko. Memoria txartelak hutsik egon beharko dute irteera unean.

3.- IZENEMATEA

Izenematea guztiz dohakoa da, eta rallyaren egun berean egingo da elkarte aretoan. Ez dago partehartzaileentzat mugarik, honela, adin mugarik gabe, argazki kamera bat duen edonork parte har dezakeelarik. Bi maila bereiziko dira, bata absolutua eta bestea umeena, 12 urterarte. Inskripzio-mahaiak bederatzia eta bederatzi t'erdia artean izango dira zabalik. Inskripzioa egin ostean partehartzaile bakoitzari oinarri hauek guztiak biltzen dituen kopia bat emango zaio, zeinetan lehiaketaren nondik-norakoak, argazkientzat autaturiko gaia eta ibilbidearen mapa agertuko den.

4.- GAIA**BITXIKERIAK****5.- IRTEERA**

Argazki rallya goizeko bederatzietan hasiko da, inskripzioa egin ostean. Partehartzaile bakoitzak ibilbideari antolakuntzak zehazturiko argazki bat egin ostean ekingo dio.

6.- IBILBIDEA ETA ARGAZKIAK ATERATZEA

9 kilometro inguruko ibilbidea markatuko da, lau orduko gehienezko denboran amaitu beharko dena. Ibilbidean zehar, formatu analogikoa zein digitala erabiltzen dutenek, antolakuntzak aurrez emaniko gaiaren inguruan 36 argazki atera beharko dituzte. **Kamera digitaldunek euren argazkiak numerazio jarraia dutela aurkeztu beharko dituzte, berahuetako bat bera ere ezabatzea baimentzen ez delarik.** Antolakuntzak 649717182 telefono zenbakia zabalduko du partehartzaileek ibilbidean zehar edozein arazoren aurrean dei dezaten.

7.- EUSKARRIEN BILKETA

Partehartzaileek, beranduenik ere eguerdiko ordubatean amaitu beharko dute ibilbidea. Kamera analogikodun partehartzaileek antolakuntza berahu rebelatu eta autoreen negatiboak itzultzeaz arduratuko den karretea entregatuko dute. Euskarri digitala darabiltenek memoria txartelak entregatuko dituzte hauek ordenagailuetara deskargatuak izan daitezen, hau egin ostean partehartzaileei itzuliko zaizkielarik. **Irudi ez-jarraiak dituzten txartelak txapelketatik kanpo geratuko dira.**

8.- LANEN AURKEZPENA

Partehartzaile bakoitzak ibilbidearen ostean antolakuntzari emaniko irudietatik hiru aukeratu beharko ditu, eta 20x30cm ko paperean aurkeztu beharko ditu 30x40cmko kartulina beltz baten gainean, aurrean titulua idatziz. Aurkezpen grafikoarekin batera, datu hauek dituen kartazal bat eraman beharko da: Kartazalaren kanpoaldean aurkezturiko hiru argazkien tituluak, eta barnean autorearen datuak: Izena, abizena, helbidea, telefonoa eta e-maila. Antolakuntzak onarturiko argazki originalei eginiko ikutu minimo batzuk onartuko dira, hala nola enkuadreak, distira maila, kontrastea, saturazioa, etab., baina inolaz ez ikutu grafikoak. Lanak gehienez ere azaroak 18, larunbatean 13etan aurkeztu beharko dira honako helbide honetan:

BASAJAUN LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 29
20150-VILLABONA-GIPUZKOA
Tlfnoa. 943 691 651

FOTO KARLIS

Kale Berria, 58
20150-VILLABONA-GIPUZKOA
Tlfnoa. 943 654 141

Hautatutako argazkiak **argazki.rallya@aizkardi.com** antolakuntzak jarriko duen e-mailera JPG formatuan bidali beharko dira

9.- LANEN ERAKUSKETA

Aurkezturiko lanak 2023ko azaroaren 20 eta 24 artean ospatuko den 39.mendi astearren barruan erakutsiko dira GUREA ANTZOKIAN. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen erakusketan zehar gerta daitezkeen ezbeharrak, galerak edo lapurretak. Lehiaketara aurkezturiko irudiak antolakuntzaren web orrian **www.aizkardi.com** argitaratuko dira.

10.- BOZKETAK

Epaimahai tekniko batek autore ezberdinen HIRU lan onenak hautatuko ditu, baita umeen mailako bi argazki onenak ere, eta honen erabakia apelaezina izango da. Gainera, erakusketara doan publikoak argazki onena bozka dezake, boto hau epaimahai teknikoarekin bat etor daitekeelarik. Kasu honetan saria gehitu egingo da.

11.- SARIBANAKETA

Saribanaketa **azaroak 23 OSTEAGUNEan** egingo da arratsaldeko bederatzietan GUREA ANTZOKIAN, 39. AIZKARDIren mendi asteko azken proiektzioaren ostean. Sariak hauek izango dira:

Argazki onenari saria.....	150 Euro
Argazki onenari bigarren saria.....	100 Euro
Argazki onenari hirugarren saria	75 Euro


UMEEN MAILAko bi argazki onenen egileentzat mendi-materiala opari

Publikoak hautaturiko argazki onenari saria

Adunako ABURUZA Sagardotegian bi lagunentzat afaria

12.- ESKUBIDEAK

Saritu gabeko lanak saribanaketa egunean jaso ahal izango dira. Saritutako lanak antolakuntzaren esku geratuko dira. Antolakuntzak dituen irudiak eta berauen eskubideak heuren autoreenak dira. Antolakuntzak kopiak egin ahal izango ditu erakusketa publiko zein promozioetarako betiere autorearen izena bertan azaltzen delarik.



15. ARGAZKI RALLY-A

AIZKARDI MEk antolaturiko
mendian zehar

INFORMAZIOA
www.aizkardi.com

2023ko AZAROAK 12
VILLABONA

IZEN EMATEA
(dohainik)
EGUNEAN BERTAN

NON
AIZKARDI ARETOAN
Larrea auzoa, 18B

IRTEERA ORDUA
9:00 etan

LAGUNTZAILEAK

KARLIS
ARGAZKI ESTUDIOA
www.karlistudioa.com

BASOAN LIBURUDENDA
BEHERAENA
%

ABURUZA
Sagardotegia

VILLABONAKO UDALA



Zenbakia

Telefona 649 717 182

Antolakuntzak esandako mendi
ibilbide batean zehar ateratako argazkiak
sartuko dira lehiaketan

LUZERA 9 km
4 orduko EPEA

LANEN ERAKUSKETA

AZAROaren 20tik 24ra GUREA zinean
39.MENDI ASTEaren barne

SARIAK

Argazki onenari saria : 150 euro
2.saria : 100 euro
3.saria : 75 euro

Publikoak hautaturiko argazki
onenari saria :
ABURUZA Sagardotegian -ADUNA-
bi lagunentzat afaria

HAURREN KATEGORIA (12 urtetik beherakoak)
Bi argazki onenen egileentzat mendi-materiala opari